

Kanalak:

Kanaletan hiru zati bereiz daitezke: komunikazioa, banaketa eta salmenta kanala.

Gure produktua telebistako iragarkien, sare sozialen eta Interneten bidez sustatuko dugu.

Gaur egungo gizartea gero eta gehiago dago teknologiaren menpe. Produktu hau etorkizuneko gazteek erabiltzea lortu behar dugu, eta, beraz, azkarrago zabalduko da. Internet bidez salmenta egiteaz gain gure denda propioan egingo dugu ere.

Interneteko dendak Ecommerce deitzen dira. Hauek abantaila asko dituzte, adibidez, Webgunea, ordainketa-metodoa, produktuen bistaratzea eta promozioak pertsonalizatzeko askatasuna ematen dute.

Salmentan erabiliko dugun beste metodo bat afiliazio programak dira. Afiliatuak besteen produktu eta zerbitzuak ezagutarazten dituzten pertsonak dira, euren webguneetan, blogetan eta sare sozialetan, komisioen truke. Ereditu hau gomendagarria da produktu digital bat duten enpreentzat, marketing ezagutzak izan gabe eta hasierako inbertsio txiki batekin, gu bezala.

Interneten gure denda izan arren Amazon, Google, Aliexpress eta antzeko enpresen bidez salduko dugu produktua. Gure produktuak bezeroen etxera iristeko banaketa enpresa bat kontratatuko dugu.

Azkenik, Flyers"-ak kaletik banatuko ditugu, horrez gain inkestak egingo ditugu enpresa gisa hobetzen joateko eta gure bezeroen iritzia jakiteko.